

## Ikastaroaren helburu eta edukien aurkibidea Index of course objectives and content.

### A2 oinarrizko erabiltzailea

Gai da egoera ezagunetan kideekin (lagun, senide, lankide, etab.) aurrez aurreko elkarreraginean gauzen eta pertsonen deskribapenak eta azalpen errazak egiteko eta ulertzeko, baldin eta bere esperientzia-esparruarekin loturiko gaiei buruzko informazio-truke erraza eta zuzena eskatzen badute: bere buruari eta familiari buruzko oinarrizko informazioa, eta erosketei, intereseko lekuei, lanbideei eta abarri buruzkoa.

A2 Oinarrizko erabiltzailearen maila lortzeko, 200 irakastorduko prozesua aurreikusten da, baldin eta A1 mailatik abiatuta baldin bada. Horiez gain, ikasleak bakarlanean eta erabilera askean beste 100 ordu jardun beharra aurreikusten da.

### Helburuak

#### Entzumena

Eguneroko egoera ezagunetan, maila bereko solaskideen arteko elkarrizketak eta jarraibideak ulertzeko gai izango da, baita gai ezagunei buruzko azalpenak ulertzeko ere (familia, erosketak, bizitokia, lanbidea, eguraldia...), baldin eta informazioa zuzena, argia eta poliki ahoskatua bada.

#### Mintzamena

Egoera ezagunetan, kideekin (lagun, senide eta abarrekin) elkarreraginean, gai izango da informazio-truke erraz eta arruntetan moldatzeko, gauzen eta pertsonen deskribapenak egiteko, eta ekintza eta egitaraueri buruzko azalpen errazak eta iritziak emateko.

#### Irakurmena

Eguneroko bizitzarekin lotutako testu labur eta errazetan gai izango da, egoera, testuinguru, formatu eta ezagutza orokorrean oinarrituz, komunikazio-asmoa, gaia, ideia nagusiak eta xehetasun adierazgarriak atzemateko. Gai izango da edukiari buruzko hipotesiak eratzeko eta aurreikus daitezkeen zehaztasunak baieztatzeko; horretarako, zenbaitetan, irudiak lagungarri izango zaizkio.

#### Idazmena

Lagunei, senideei, ikaskideei edo lankideei ohar eta mezu laburrak nahiz postalak, izandako esperientzien kontakizun laburrak eta pertsonen deskribapenak idazteko gai izango da, betiere, emandako erduei jarraiki.

	<b>UNITATEA</b> <b>Unidad</b>	<b>Helburua</b> <b>Objetivos</b>	<b>Gramatika eta diskurtsoa</b> <b>Gramática y discurso</b>
1	<b>Hirian mugitzeko</b>	Lagunari autoa erosteko aholkuak ematea idatziz. Aholkuak emateko bideak gogoratzea.	NOR-NORI-NORK orainaldian, LEKUZKO deklinabidea, BAIZIK, konpletiboak (EN, ELA, TZEKO), ZERTAN ARI.
2	<b>Beti jaten</b>	Euskal Herriko bi ohitura ezagutu eta ikasleen herriko bat kontatzea.	Eskerrak harridurazkoa, orduak, kantitateak (bi kilo patata...)
3	<b>Zein sare sozial?</b>	Blog batean zein sare soziai erabiltzen dituzun eta zein ohitura dituzun kontatzea.	Kontzesiboak (nahiz eta/arren), baizik, TZEKO amorratzen/irrikan..., deklinabidea
4	<b>Hau zarata!</b>	Ezagun bati kexa adieraztea. Zarataz sortzen dituen arazoez hitz egitea.	HARRIDURAKO ESALDIAK (zein, bai, nolako...), aditza errepasatu. JAKIN eta ZERTAN JAKIN birgogoratu.
5	<b>Gogoko tokian aldaparik ez</b>	Txikitan zer gustatzen zitzaizun adieraztea. Zaletasunak azaltzea.	Kontaketa NOR-NORI-NORK aditza lehenaldian. T(Z)EA+ADJEKTIBOA+DA OHITURAZKOA orainaldian eta lehenaldiak: joaten gara/joaten ginen... kausalak: (E)LAKO, BAIT, ETA, ZEREN ETA... lehenaldia errepasatzea.
6	<b>Zinemara</b>	Lagunari aholku ematea eta film baten sinopsi laburra egitea ahoz eta idatziz. Adostasuna eta desadostasuna adieraztea.	Filmen sinopsiak. (E)NIK konpletiboa. ZERI BURUZKOA. Harridurazkoak. NOR-NORI, NORENTZAT deklinabidea errepasatzea.
7	<b>Gure etxea</b>	Foro ezagun batean (ikastarokoan, euskal etxeokan...) gazteek etxebizitza lortzeko dituzten arazoak azaltzea.	Aurreko asteetakoak: konpletiboak, nahiz eta/arren, baizik, harridurazkoak... Errepasoa: NOR-NORI-NORK, harridurazkoak, NOR-NORK, DEKLINABIDEA
8	<b>Hauek ohiturak!</b>	Lagun bati gure ohitura edo mania txikien berri ematea. Kontaketa	Aurreko asteetakoak

9	<b>Euskal mitologiako pertsonaiak</b>	Lagunari istorio bat kontatzea idatziz. Euskal mitologia zertxobait ezagutzea	Ipuinak, mitologia, kontaketa... Erlatibo erreferenteduna. ZEREZ eta ZEREZKO. Aurreko asteetakoak erreparasatzea
10	<b>Animaliak gurean</b>	lagunari aholkuak ematea etxean animalia egoki zaintzeko.	Erlatibo erreferenteduna. ZEREZ eta ZEREZKO. NOREN eta NONGO Deskribapenak Berriak eta aholku testuak
11	<b>Nola egiten dugu lo?</b>	Lagunari ondo lo egiteko aholkuak ematea. Ohiturak kontatzea.	Erreparasoa Baino ago Baino gehiago/gutxiago
12	<b>Erosketak, non?</b>	Lagunari eskariari erantzunez aholku ematea. Lagunari zure ohituren berri ematea ahoz.	Erreparasoa, konparaketak, agintera
13	<b>Zer gertatu zen?</b>	Gertakari historiko ez oso ezagun bat idaztea ikastaroko blogean argitaratzeko.	Berriak, biografiak, historia... NOR-NORI-NORK lehenaldian Erlatiboa NAHIZ ETA/ARREN
14	<b>Posible al da?</b>	Kontaketa lantzea. Gertakari bat kontatzea.	Erreparasoa: NOR-NORI-NORK lehenaldian, harridurazkoak Konpletiboak: ela, enik, en... Kausalak Berriak eta ipuinak
15	<b>Egin kirola!</b>	Lagunari aholku ematea. Baimena eskatzea eta ezintasuna adieraztea. Txikitako ohiturak kontatzea ahoz.	Kirolaren inguruko hiztegia. Orduak, ordutegiak Ahalera NOR eta NOR-NORK: daiteke, dezake... Aditz lokuzioak: behar izan, nahi izan, ahal izan, ezin izan
16	<b>Oporretara</b>	Ikastaroan ikasitako adierazpide linguistikoak erreparasatzea.	
	<b>Ebaluazioa</b>	A2.2 mailako ebaluazioa egitea.	